



MIGUEL IRASTORZA MAIXUA (1901-1936)

ERKAL (I) ZALEA IZATEAGAITIK
TIROKATUA IZAN ZIÑAN

1981'ko Epaillaren 31'an Errenderiko Udal batzarrean erabaki zan zan ordurarte «Calvo Sotelo» zeritzan ikastetxeak izena adatu bear zuela eta aurreruntz Miguel Irastorza izenarekin jarraitu bear zuela.

Gure errian azkok dakite nor izandu zan maixu au, bañan oraindik asko gera bere berri dakigunak, nola ez ba, berarekin egin ba genituan gere lenengo ikaskizunak, argaitik txetasun batzuek azalduko dizkizuet Oarso aldizkari onetan bere nortasunaren berri jakin dezazuten.

1922'ko Dagonillaren 14'an, orduko maixu Sorazu jaunak bere maixutza utzi ondoren, Erriko Udalak leiaketa baten deia egin zuan erriko maixu berri bat aukeratzeko, leiaketa onetan parte artzeko bearrezkoa zan maixu ageria azaltzea eta euzkeraz jakitea eta auen artean erriko semeren bat agertzen ba zan bereziagoa izango zan, urteko lan zaria 2.500,- Pzta izanik.

Urte artan Cruz Los Santos alkate zan Luis Urreiztieta idazkari zalarik; dei onek ez zuan erantzunik izan eta Iraillaren 6'an bigarren aldiz deia egin zan leiaketarako 2.750,- Pzta lan zaria zalarik.

Dei oneri bost maixuk erantzun zioten, Cesareo Moreno Ciudad Rodrigokoa, Angel Ruiz Logroñokoa, Nicolas Ochoa de Eribe eta Marcial Ortiz de Echeverria Gazteitzarrak, Miguel Irastorza bostgarrena izanik.

Bost auen irakasle ageriak ontzaz artuak izan ziran bañan euskera mallan asterketa bat egiteko dei egin zitzaioen, bearrezkoa bai zan maixu berria aukeratzeko eta alperrik azaltzea izango zala gai ontan jakindurik gabe etortzea.

Moreno eta Ochoa Eribe jaunak ez zakitela euzkeraz adierazi zuten, berriz Ruiz eta Ortiz de Echeverria ez ziran azaldu; bakarrik Miguel Irastorza aurkestu zan azalduz Euzkeraren esaguera eta mintzaeraren jabe zala.

Onela 1922'ko Urrillaren 3'ko Udal batzarrean, Miguel Irastorza Echeverria Zaldibi'ko Zubiondo etxean jaiotako 21 urteko maixu gaztea izendatu zuten Errenderi'ko Viteri ikastetxerako erriko maixu bezela.

Bere bizi lekua orduan Plaza de las Escuelas gaur Vicente EliceGUI 7-2'an izandu zuan Francisco Auzmendi orduko maixu bizi lagun zualarik.

(1) Erkal-zalea: Republicano.

Goitik ezkerretik ezkubira: F. Uranga, M. Arbelaz, A. Idiazabal, D. Echeverria, J. A. Loidi, A. Astigarraga, M. Irastorza, J. C. Huici, P. Olascoaga, M. Michelena, E. Usabiaga, F. Ocariz, M. Oyarzabal.

Bigarren mallan: J. Oyarzabal, I. Rueda, J. Rodriguez, A. Arreche, G. Marin, A. Gajate, E. Diaz, M. de los Mozos, L. Barrios, J. Basterra, A. Blanco, Jimenez, F. Juanicotena.

Etxerita: T. Echeverria, J. M. Irisarri, Cuellar, J. Larrain, A. Asteasu, V. Perez, J. Gamboa, J. Estefania, F. Irizar, J. Olascoaga, Garcia, M. Eguiazabal, I. Olaiola.

1926-1927 Ikas saioan. Mordoska illak dira.

Maixu bizitza Errenderin amalau urtekoa izan zan, urte aue-tan bere erakuspenak ainbat gastetxoan artean azaldu zituan, orduan berarekin ikasle izan giñanak ondo esagutu genduan bere doaja irakasle bezela; maixu argi eta zorrotza aldizka, zintzotasun eta gizotasun bidean bere ikasleak jartzen jakin izan zuana.

Gogoan daukat neri euzkera gaiak atsegin zitzaizkiala jakinda, Garbiñe deritzan antzerki liburua erregali ziran.

1931'ko urtean La Voz de Guipuzcoa'ko berri idazle zan Fermin Sainz il ondoren bere lanari jarraitu zion erriko albiztiak azalduz egunkari artan.

1936'ko guda irten zanean Errenderin gelditu zan ezer gertatuko ez zitzaioelakoan iñoiri kalte egin gabekoa bai zan bañan erkal zalea izaki eta orduko agintarieri ez izan atsegin onela oldosten zuten jendeak, argaitik espeteratua izan zan eta epaitu izan ondoren Oiartzungo Karrika bidean dagoen arrobian urte artan ainbeste lagun tirokatuak izandu ziran lekuan bere bizia kendu zioten erkal eta askatasun zale izategaitik.

1977'ko Arazoaren l'an Oiartzungo illerrian Karrikako arrobian bildutako gorpuzkondoak, illobo berezi batean elkartuak izandu ziran kristau legeak agintzen duan eran eta egun berean illeta nagusi bat egin zan Eleiz Nagusian leku artan tirokatuak izandu ziran guztien alde; ez jakin ziur bañan ba liteke gure maixuaren gorpuzkondoak aien tartean arkitzea.

Orra ba da Miguel Irastorza'ren Errenderiko maixu bizitzaren txetasun batzuek eta bere ikasle izanik bere izena esagun izateko erabili dituan lerroak, orain ba dakizue nolatan eta zergaitik ipiñi zaion bere izena Erriko ikastetxe bateri.

Zaldibiatik etorri ziñan, gazterik Errenderira Maixu bezela jakintzan alde, lana zintzo egitera Amalau urte pasa zenituan, gaztetxoekin batera Erakutzirik gazte aieri, gizon onak izatera Erkal zalea ziñadelako, eramanik espetera Eta azkenik tirokatuaz, zure gorputza lurpera

(Xabier)
Bere ikasle izandua
1982-6-14